

Edan Coca-Cola



SANTI LEONÉ

Afera bizkor laburbildu beharko banu (1.800 karaktereko zutabe batean, adibidez), esaldi hau hautatuko nuke: “Ostraka batean *Edan Coca-Cola* paratuko balu, karbono 14ko probek euskarriaren antzinakotasuna frogatuko lukete, frogatzekotan, baina ezinezkoa litzateke testua III. mendekoa izatea”. Alberto Barandiaranek erran zuen, Sautrelan, 2011ko urtarrilean. Hasier Etxeberria zenak, zorrotz, berehala bota zion galdemodua: “Eta non jartzen du, bada, *Edan Coca-Cola*”? Zenbait adibide aletu zizkion orduan gonbidatuak, argi eta zehatz.

Veleia afera liburuaren kariaz izan zen elkarrizketa. Bere garaian, miresmenez irakurri nuen Barandiaranen lana, eta oraindik iduritzen zait euskaraz dugun saiakera eta ikerlan eredugarrienerarikoa. Beraz, aise ulertu nuen –aise ulertzen ahal zuen nornahik– zer-nolako ekarpena egin zion liburuak euskal kulturari; eta zer-nolako ekarpena Sautrelari, egilea gonbidatzeak.

Zailxeago egiten zait, ordea, igartzea zer ekarpen klase egin dioten Elexpurren zenbait teoriak euskal kulturari, eta zer ekarpen klase teoria horiek zalantzan batera jarri gabe hedatzeko aukera emateak non eta Artefaktuan, serio izan behar lukeen literatura saio batean alegia. Homeopata bat gonbidatuko genuke medikuntza saio –berriz diot, serio– batera? Bada, nonbait, ez da problemarik hauspotzeko betiko topiko zaharkituen inguruan –gure hizkuntzaren jatorriaren misterioa, hizkuntza zaharra edukitzeak gure herriari ematen dion harrotasuna, gure autoestimua– dabilen norbait.

Saioaren akaberan, gogoeta morala egin zigun Elexpuruk: galduak gabiltza sukaldaritza goiti eta sukaldaritza beheiti; bizkarra eman diogu gure nortasunari, munduari benetan eskaintzeko dugun altxor zaharrari. Gastronomia ongi dagoela, alegia, baina, edatekotan, edan ezazue III. mendeko Coca-Cola. ●



ADUR

“AURTENGOA SORPRESA IZAN DA”

IÑAKI VIÑASPRE, BERTSOLARIA

Iñaki Viñasprek jantzi du Arabako Bertsolari Txapelketako txapela, buruz burukoan Manex Agirrereren aurretik geratu ostean. Atzetik sailkatu dira, hurrenez hurren, Xabi Igoa, Oihane Perea, Peru Abarrategi eta Aroa Arrizubieta. Aurtengoa sorpresa izan dela eta arabarrei txapel bat zor ziela adierazi du Abetxukuko bertsolariak. Behin txapela buruan, hala amaitu zuen saioa: “Uste dut badakitela.../ Iratxe eta Ekaitz argi dut/ hau merezi duzuela,/ eta etxean nahi zaituztegu/ txori libreak bezela”. **EITB.EUS (2019/03/31)**

